

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbituza animaliak maite edo gustuko duen edonorrentzat zuzendua dago, hau da, gure merkatua masiboa da. Horrez gain, segurtasuna lehenesten duten pertsonentzako bideratuta dago baita ere. Gure aplikazioa 18 urtetik gorako guztientzat dago eskuragarri. Gure bezeroak mundu zabalekoak izan daitezke baita ere garapen prozesuan dauden herrialdeak ere. Komunikatu ahal izateko, APP-an **hizkuntza aldatzeko** aukera izango dute bezeroek, horrela, herrialde desberdineko pertsona batek beste herrialde bateko animalia bat adoptatu nahi badu, komunikazio hobe egongo da animalia aurkitzen duen pertsona eta adoptatzen duen pertsonaren artean.

Bezeroak ez daukate zertan ezaugarri finkorik edo zehatzik izan gure kasuan. Ez dugu gure aplikazioa bereziki edonorri bideratzen baina animalia era egoki batean zaintzeko gai direnak izan beharko lukete, bestela animalia kalean geratuko litzateke berriz eta hori erabat ekidin nahi dugu. Horregatik, gutxienezko ekonomia maila izan beharko luke bezeroak, adibidez, animalien janaria erosteko eta bere beharrak (adibidez, behar medikuak) asetzeko. Horretarako, profila sortzean, baldintza zehazten da. Nahiz eta leku txiroetan ez ditugun bezero potentzial askorik izango, gustatuko litzaiguke bertako pertsonak kontzientziaztea eta animaliekiko jarrera positiboa izatea. Dena den, leku ez garatu batzuetan normala da hainbat txakur eta katu kalean egotea, orduan, pertsonak ezin dutenez animaliak zaindu, gure zerbitzuak elkarte batzuekin kolaboratzeko aukera emango du, animaliak zaintzeko eta egoera hobe batean bizitzeko, beraz, elkarte hauek gure bezero posibleak izan daitezke.